

KANPORA IRTENGO DEN ELIZA

UNA IGLESIA EN SALIDA

© **idatz** Elizbarrutiko Argitaldaria / Editorial diocesana
Urdaneta, 10
20006 Donostia – San Sebastián
Telf.: 943 465 326
email: idatz@elizagipuzkoa.org

ISBN: 978-84-96903-62-3
Lege-gordailua: SS 680-2019

Inprimatzailea: Antza S.A.L.
Zirkuitu ibilbidea, 2. – 20160 Lasarte-Oria

KANPORA IRTENGO DEN ELIZA

UNA IGLESIA EN SALIDA



Donostiako
Elizbarrutia
Diócesis de
San Sebastián

ÍNDICE

Presentación	6
Introducción	10
I. El escenario en que vivimos hoy nuestra fe	16
1. Un mundo de cambios rápidos, radicales y globales.....	16
2. Una convivencia social frágil y en riesgo	20
3. Un modo de vivir la fe emocional y subjetivo	22
4. Una Iglesia que nos llama a la conversión pastoral	24
5. Una diócesis que pide mayor comunión y consenso	26
II Discernimiento a la luz de las orientaciones de la Iglesia	28
1. Dejarnos mover por la misericordia de Dios	28
2. Centrarnos en el evangelio de Jesucristo.....	28
3. Apostar por la familia	30
4. Apostar por una Iglesia profundamente misionera.....	32
5. Comprometernos con esta nueva etapa evangelizadora	34
III. Criterios que pueden ayudarnos en nuestra acción pastoral.....	38
1. Partir de la realidad de las personas y de la cultura del encuentro ...	38
2. Trabajar por el desarrollo integral de los pobres desde el amor fraterno.....	40
3. Cuidar más y mejor nuestra espiritualidad	42
4. Impulsar actuaciones testimoniales más que teorías.....	44
5. Y que todo lo hagamos de modo más comunitario y sinodal	46
Epílogo	48

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
Sarrera.....	11
I. Gure fedea bizi dugun ingurunea	17
1. Aldaketa azkarrak, errotikakoak eta globalak bizi dituen mundua....	17
2. Ahula den eta arriskuan dagoen gizarteko elkarbizitza	21
3. Fedea bizitzeko era emozionala eta subjektiboa.....	23
4. Bihotz-berritze pastoralera dei egiten digun Eliza.....	25
5. Elkartasun eta adostasun gehiago eskatzen duen Elizbarrutia	27
II Elizaren argibideen eraberako bereizmena	29
1. Jainkoaren errukiak eragin gaitzan utzi.....	29
2. Jesu Kristoren Ebanjelioan zentratu	29
3. Familiaren aldeko apustua	31
4. Erabat misiolaria den Eliza baten alde egin	33
5. Aro ebanjelizatzaile berri honekin konprometitu.....	35
III. Egitasmo pastoraletarako irizpide lagungarriak.....	39
1. Pertsonak eta elkar aurkitzearen kultura abiapuntu izatea	39
2. Elkarmaitasunean oinarriturik behartsuen garapen osoaren alde lan egitea	41
3. Gure izaera espirituala gehiago eta hobeto zaintzea	41
4. Teoria baino gehiago lekukotasun-ekintzak bultzatzea	43
5. Eta hori guztia elkartasunezko era sinodalean egitea	45
Amaiera.....	49

PRESENTACIÓN

Nuestra Diócesis es muy joven. Fue erigida el año 1950, desgajándose de nuestra Diócesis madre de Vitoria-Gasteiz. A los pocos años de haber iniciado la andadura tuvo lugar el gran acontecimiento eclesial del II Concilio del Vaticano; con todo lo que ello supuso de crisis y convulsiones, pero también con la gran oportunidad de redescubrir el tesoro de la eclesialidad al servicio de la evangelización. Sin duda alguna, uno de los frutos más visibles de ese espíritu conciliar en nuestra Diócesis ha sido la viva conciencia de corresponsabilidad en la vida de la Iglesia.

La planificación pastoral de nuestra Diócesis se ha visto reforzada en las últimas décadas por la elaboración de lo que hemos venido en llamar MARCO PASTORAL. Se trata de establecer unas claves pastorales fundamentales, para posteriormente elaborar los planes pastorales con un enfoque coherente.

Este MARCO PASTORAL que tienes entre tus manos, es el tercer MARCO PASTORAL de nuestra Diócesis. El primero fue la llamada «Ponencia Cero de Zesto» (1980); el segundo fue «Una Iglesia al Servicio del Evangelio» (1999); y este tercero «Una Iglesia en salida» (2019).

El camino para la elaboración del presente MARCO PASTORAL ha sido una muestra de sinodalidad. Como primer paso, se constituyó una comisión de trabajo coordinada por un Vicario y compuesta por laicos hombres y mujeres; esta comisión elaboró un *instrumentum laboris* de referencia, para ayudarnos en la reflexión.

Posteriormente se propuso una encuesta abierta a todos, con el objetivo de recoger las impresiones, reflexiones y propuestas del Pueblo de Dios, que deben de ser objeto de discernimiento. Se han recibido 644 respuestas de personas y/o grupos de la Diócesis, cuyos resultados se han presentado en los arciprestazgos.

Una vez constituido el nuevo Consejo Pastoral Diocesano en el año 2019, en el que están representados todos los ministerios, vocaciones y carismas diocesanos, su primer cometido ha sido el abordar la elaboración del nuevo MARCO PASTORAL; que finalmente fue entregado al Obispo para su aprobación.

Este proceso culmina a finales del presente curso pastoral (2018-2019). En el mes de junio, antes de la llegada del tiempo de verano, nos disponemos

AURKEZPENA

Gure Elizbarrutia oso gaztea da, Gasteizko Elizbarrutia zatituz 1950ean sortua. Gure Elizbarrutiak bere ibilbidea hasi eta urte gutxira izan zen Vatikanoko II. Kontzilioa, horrek berekin ekarri zituen krisialdi eta astinduekin; baina ebanjelizatzearen zebitzura dagoen eliztartasunaren altxorra berriro aurkitzeko egokiera ederra ere ekarri zigun. Zalantzarik gabe eta begi-bistakoa denez, Kontzilioko espiritu horrek gure Elizbarrutian izan duen fruituetako bat eliz bizitzako ardurakidetasunaren kontzientzia bizia izan da.

Gure elizbarrutiko plangintza pastoralak indar berria hartu du azken hamarkadetan, MARKO PASTORAL delako hau lantzeari dagokionaz. Funtsezko irizpide pastoralak jartzen ari gara, ondoren plangintza pastoralak prestatzeko ikuspegi egoki baten barruan.

Eskuetan duzun MARKO PASTORAL delako hau hirugarrena da gure Elizbarrutian. «Zestoako Zero Txostena» (1980) izan zen lehenengoa; «Eliza Ebanjelioaren zerbitzura» (1999) bigarrena; eta oraingo hau, «Kanpora irtengo den Eliza» (2019) da hirugarrena.

MARKO PASTORAL hau lantzeko erabili dugun bidea sinodo-erako jarduera izan da. Lehenengo pausoa, lanerako batzordea eratzea izan zen, gizon eta emakume laikoen talde batek osatua, Bikario bat koordinatzaile zela; batzorde honek oinarrizko *instrumentum laboris* prestatu zuen, gogoetarako lagungarri.

Ondoren, denek parte hartzeko zabalik zegoen galdeketa eratu zen, Jainkoaren Herriaren iritzi, gogoeta eta proposamenak jasotzeko asmoz; hori guztia aztertu egin behar zen gero. Elizbarrutiko pertsona eta/edo taldeen-gandik 644 erantzun jaso dira, eta emaitza hori artzziprestaldeetan aurkeztu da.

Elizbarrutiko ministerio, bokazio eta karisma guztiak ordezkatuak dauden Elizbarrutiko Kontseilu Pastoral berria 2019an eraturik, honen lehenengo zeregina MARKO PASTORAL berria lantzeari ekitea izan da; eta, azkenik, emaitza Gotzainari aurkeztu zitzaion berak oniritzia emateko.

Prozesu hau urte pastoral honen (2018-2019) bukaeran burutuko da. Ekainean, udaldia hasi aurretik, aurkeztuko dugu MARKO PASTORAL hau Elizbarrutiko Jardunaldi Pastoralen testuinguruan.

a presentar el nuevo MARCO PASTORAL, en el contexto de unas jornadas pastorales diocesanas.

Doy gracias a Dios en esta solemnidad de Pentecostés, porque continúa llenándonos de sus dones. Y le pido que, puesto que somos frágiles nos ayude a seguir anunciando a Jesucristo con la fuerza del Espíritu Santo.

San Sebastián, 9 de junio de 2019

Solemnidad de Pentecostés

✠ **José Ignacio, Obispo de San Sebastián**

Eskerrak ematen dizkiot Jainkoari Pentekoste-festaburu honetan, gu bere dohainez betetzen jarraitzen duelako. Eta eskari hau egiten diot, gu argalak garenez, lagun diezagula Espiritu Santuaren indarrez Jesu Kristoren berri ona zabaltzen jarrai dezagun.

Donostia, 2019ko ekainaren 9a

Pentekoste-festaburua

✠ **Jose Ignazio, Donostiako Gotzaina**

INTRODUCCIÓN

1. ¡Jesús es Señor! (cfr. *Rm* 10, 9). Él es el enviado del Padre para llevar a cabo la salvación del mundo (cfr. *Jn* 3, 17) con la gracia del Espíritu Santo (cfr. *Hch* 2, 2). Jesús es el Buen Pastor que ha entregado su vida para que no se pierda ninguno de cuantos le hemos sido encomendados (cfr. *Jn* 10, 28). Jesús, ha dado a luz la Iglesia y nos ha asociado íntimamente a su designio salvífico, enviándonos como testigos suyos hasta los confines de la tierra (cfr. *Mc* 16, 15). Este anuncio de esperanza no ha caducado, sino que sigue teniendo la misma actualidad –o más, si cabe— dos mil años después de su proclamación en torno a un pequeño y remoto lago de Galilea. Nuestro mundo ‘gime entre dolores de parto’ (cfr. *Rom* 8, 22), en medio de luces y sombras, esperando la plena consumación de esta promesa de salvación realizada por Cristo y predicada ininterrumpidamente por su Iglesia.

La Diócesis de San Sebastián, pequeña porción de la Iglesia del Señor, renueva su confianza en que éste es tiempo de gracia y día de salvación (cfr. *2 Cor* 6, 2). A Dios no se le ha escapado de la mano, en ningún momento, el designio de la historia, y el Reino de Dios sigue abriéndose camino, incluso cuando muchos lo desconocen.

2. Al mismo tiempo, somos conscientes de que vivimos un ‘cambio de época’. Y lo vivimos todos, también la Iglesia y, es por eso por lo que necesitamos adecuarnos a este momento particular de la historia. No se trata solo de un lavado de cara. No se trata de meros retoques. Se trata de actualizar la misión, rehaciendo el paradigma de la caridad, la espiritualidad y la comunión. Evidentemente no se trata de inventarnos otra Iglesia. Es en esta Iglesia, en la nuestra, donde necesitamos redescubrir y renovar nuestra eclesialidad, respondiendo a los retos de hoy. ¡Apostamos por la alegría del Evangelio de la misericordia! Se trata de un modo de vivir la Iglesia, un modo de ser Iglesia, aquí y ahora, al servicio de nuestro pueblo.

3. El cambio cultural, social, y antropológico, así como los avances científicos y técnicos, han generado un nuevo escenario en el que la Iglesia se siente fuertemente interpelada. De ser protagonista en la sociedad en el pasado, ahora es una voz más entre otras, que muchas veces apenas se escucha. Y una voz que generalmente suena disonante en el conjunto de la sociedad. La verdad es que los retos que tenemos son muchos y profundos. Sabemos que

SARRERA

1. Jesus da Jauna! (ik. *Erm* 10, 9). Bera da munduaren salbamena gauzatze-ko Aitak bidali duena (ik. *Jn* 3, 17) Espiritu Santuaren graziarekin (*Eg* 2, 2). Jesus da Artzain ona, beraren esku jarriak izan garenotatik inor ere gal ez dadin bizia eman duena (ik. *Jn* 10, 28). Jesusek sorrarazi du Eliza eta estu-estu lotu gaitu bere salbamen egitasmoarekin, bere testigu izatera lurraren bazter-rreraino bidaliz (*Mk* 16, 15). Itxaropen-mezu hau ez da baliogabetu, baizik eta gaurkotasun bera du –edo gehiago, behar bada— bi mila urteren ondoren, Galileako laku txiki eta urrutiko haren inguruan iragarri zenetik. Gure mundua ‘erdimenez dago’ (ik. *Erm* 8, 22), argi-ilunetan, Kristok egia noiz bihurtu zain eta Elizak etengabe iragarritako salbamen-promesa hau noiz bere betera iritsi-ko.

Donostiako Elizbarrutiak, Jaunaren Elizaren zati txiki honek, berritu egiten du aldi hau grazia- eta salbamen-aldi denaren konfiantza (ik. *2 Ko* 6, 2). Jainkoari ez zaio eskutik joan, sekula, historiaren etorria, eta Jainkoaren Erreinua hedatuz doa baita askok ezagutzen ez dutenean ere.

2. Aldi berean, badakigu ‘garai-aldaketa’ batean bizi garela. Denok bizi dugu hori, baita Elizak ere, eta horregatik historiaren une zehatz honetara egokitu beharra dugu. Kontua ez da aurpegia txukuntzea. Ez da ukitu batzuk egitea. Misioa gaurkotzea da kontua, karitatearen, espiritualtasunaren eta elkartasunaren paradigma berreginez. Kontua ez da, jakina, beste Eliza bat asmatzea. Eliza honetan, gurean aurkitu behar dugu berriz eta berritu gure elizartasuna, egungo erronkei erantzunez. Gure apustua errukiaren Ebanjelioaren poza da! Gure herriaren zerbitzura gaur eta hemen Eliza bizitzeko modua da, Eliza izateko modua.

3. Aldaketa kulturalak, gizartekoez eta antropologikoez eta zientziaren eta teknikaren aurrerapenez agertoki berri bat sortu dute eta Eliza interpelatua sentitzen da. Gizartearen protagonista nagusia izatetik, besteen artean ahots bat gehiago izatera igaro da Eliza, sarritan ia entzun ere egiten ez den ahotsa. Eta sarritan gizarte moderno edota postmodernoaren erdian desberdina gertatzen den ahotsa. Egiaz, asko dira eta sakonak ditugun erronkak. Badakigu ezer ez dagoela galdua eta ez dela inoiz galduko, Espiritu Santua beti eta toki guztietan eragiten ari baita (ik. *Jn* 16, 25-33).

nada está perdido y nunca lo estará porque, el Espíritu Santo actúa siempre y en todas partes (cfr. *Jn* 16, 25-33).

4. En el fondo, se trata de fijar la mirada en Jesús; vivir y proponer la fe en Jesucristo, de un modo más teológico (como presencia salvadora de Dios en la historia) y menos ideológica. Se trataría de concentrarnos en lo esencial: vivir con gratitud y responsabilidad la fe en Jesucristo e invitar a todos a experimentar el gozo de creer con alegría; generar comunión, celebrar, privilegiar el servicio y centrar la evangelización en el anuncio del Reino de Dios. La Iglesia se distingue por la presencia de Jesús, el Señor, entre los suyos: «Mirad cómo se aman. Mirad cómo están dispuestos a morir el uno por el otro» (Tertuliano).

5. No cabe duda de que, como Iglesia, tenemos que hacer un profundo examen de conciencia para estimular y provocar una verdadera conversión pastoral a todos los niveles, los personales y los estructurales, de forma que nos habilite para evangelizar en el mundo de hoy. La conversión pastoral supone la clarificación y ajuste del conjunto de las dimensiones de la iglesia (comunión y misión), así como el papel actual de los laicos, la vida religiosa y los pastores dentro de la comunidad creyente.

6. Tenemos que atrevernos a reflexionar sobre cómo estamos; marcar el camino a recorrer y comenzar a dar pasos. Reflexionar en nuestra situación como laicos, como sacerdotes, como religiosos y religiosas; qué peligros nos acechan y por qué; cuáles son nuestras tentaciones; por qué la gente se aleja de los sacramentos y de la Iglesia (¿las divisiones internas, el influjo del materialismo y el hedonismo, los escándalos y abusos sexuales, la brecha en las propuestas morales...?); cuáles son las razones por las que cuesta que sea escuchada la voz de la Iglesia en la sociedad. Tenemos que nombrar los temas que nos preocupan, sea a nivel intra-ecclesial, como a nivel extra-ecclesial; estudiar la situación concreta del mundo y la cultura en que vivimos, así como la situación de nuestro pueblo en concreto. Nos pueden ayudar estos criterios del Papa Francisco: Lo importante es la realidad no las ideas, el tiempo es superior al espacio, la unidad prevalece sobre el conflicto y el todo es superior a la parte (cfr. *Evangelii Gaudium* [en adelante EG] 222-237).

7. La actitud básica que necesitamos es la del discernimiento. Estamos en una situación eclesial nueva, en un nuevo contexto social. No tenemos respuestas ni recetas. Estamos llamados a ponernos a caminar, aun corriendo riesgos; acogiendo lo que hoy el Espíritu está diciendo a las Iglesias (cfr. *Ap* 2,

4. Funtsean, Jesusi begiratzea da kontua; Jesu Kristorekiko fedea era teologalagoan bizi eta iragartzea (Jainkoak historian duen presentzia salbatzaile moduan). Funtsezkoari begiratu behar diogu: Jesu Kristorengan dugun fedea esker onez eta arduraz bizi eta denak gonbidatu alaitasunez sinestearen esperientzia egitera; komunioa bideratu, ospatu, zerbitzua lehenetsi eta ebanjelizatzea Jainkoaren Erreinuaren iragarpenean zentratu. Jesus, Jauna, beretarren artean egoteak egiten du Eliza berezia: «Begira nola maite duten elkar. Begira nola dauden prest bata besteagatik hiltzeko» (Tertuliano).

5. Ez dago zalantzarik: Eliza garenez, kontzientzia-azterketa egin beharra dugu maila guztietan, pertsonalean nahiz egiturazkoan, bihotz-berritze pastoralara sustatu eta eragiteko, egungo munduan Ebanjelioa hots egiteko gai izan gaitezen. Bihotz-berritze pastoralak Elizaren alderdi ezberdinak (komunioa eta misioa) argitzea eta egokitzea eskatzen du, baita fededunen elkartean laikoek, erlijioso/erlijiosek eta artzainek duten eginkizuna aztertzea ere.

6. Zein egoeratan gauden hausnartzeko ausardia behar dugu; egin beharreko bidea zehaztu eta urratsak ematen hasi. Laiko bezala, apaiz bezala, erlijioso/erlijiosa bezala gure egoera aztertu behar dugu; zein arriskuk inguratzen gaituen eta zergatik; zein diren gure tentaldiak; zergatik aldentzen den jendea sakramentuetatik eta Elizatik (barne zatiketak, materialismoaren eta hedonismoaren eragina, sexu-gehiegikeriak eta eskandaluak, proposamen moralen urruntzea...?), zein diren Elizaren ahotsa gizartean entzutea zailtzen duten arrazoiak. Kezkatzen gaituzten gaiak zerrendatu behar ditugu, bai Elizaren barne aldera, bai kanpoaldera ere; bizi garen kultura eta munduaren egoera zehatza aztertu, baita gure herriarena ere zehazki. Lagungarri izan ditzakegu horretarako Frantzisko Aita Santuaren irizpideak: Ideiak baino garrantzitsua goa da errealitatea, espazioaren gainetik dago denbora, gatazkaren gainetik dago batasuna eta zatiaren gainetik dago osotasuna (ik. *Evangellii Gaudium* [aurrerantzean EG] 222-237).

7. Bereizmenaren jarrera da, behar dugun jarrera nagusia. Eliz egoera berri baten aurrean gaude, gizarte-testuinguru berri batean. Ez dugu erantzunik, ezta errezetarik ere. Arriskuen erdian ere bidean jartzeko deia jaso dugu; Espirituak Elizei gaur esaten diena entzun beharrean gaude (ik. *Ap* 2, 7). Egiteko honekin zaletu behar dugu. San Joan Paulo II.ak *Novo millennio ineunte* Gutun apostolikoan hau esan zuen aspaldi: «Zain dugu pastoraltza-pizkundearen egiteko liluragarria» (39. zk.).

7). Y, debemos apasionarnos con la tarea. San Juan Pablo II en la Carta apostólica *Novo millennio ineunte*, hace tiempo que afirmó: «Nos espera una apasionante tarea de renacimiento pastoral» (n. 39).

8. Pero para que esto sea posible, necesitamos que nuestra pastoral, llamada a acompañar, animar y consolar, brote de una profunda espiritualidad. Un mero cambio de estructuras, sin mística, es estéril. Necesitamos reconocernos como creyentes en una Iglesia que se va realizando en espacios y momentos en los que nos abrimos al Espíritu, lo escuchamos, recogemos su inspiración y nos ponemos a caminar juntos hacia donde Él nos impulsa: «donde dos o tres están reunidos en mi nombre, allí estoy yo en medio de ellos» (*Mt 18, 20*).

9. Y por supuesto, necesitamos, en palabras del Papa Francisco, de esos 'santos de la puerta de al lado', verdaderos discípulos misioneros. Sin ellos, sin esos testigos de la acción de Dios en la vida cotidiana, es difícil ser creíbles y que el Reino se encarne. Así como necesitamos un pueblo santo, una verdadera comunidad de vida. En este sentido, el MARCO PASTORAL, los diversos grupos eclesiales, nuestras parroquias, y los demás espacios donde vivimos, compartimos y celebramos nuestra fe inciden poderosamente en la posibilidad de que el mensaje de Jesús llegue hasta los confines de la tierra, y a las entrañas de nuestro pueblo que cuenta con una historia benemérita de amor eclesial y compromiso social, cultural y misionero.

8. Hau posible izan dadin, beharrezko dugu laguntzera, adoretzera eta kontsolatzera deitua dagoen gure pastoraltza, espiritualtasun sakon batetik sortua izatea. Mistikarik gabeko egitura-aldaketa hutsa antzua da. Ezinbestekoa dugu geure buruak Elizaren baitan fededun aitortzea; Espirituari geure burua zabaltzen diogun gune eta uneetan gauzatzen da Eliza, Espirituari entzuten diogunean, beraren eragina jasotzen dugunean, berak garamatzen tokira elkarrekin bidean jartzen garenean: «Nire izenean bizpahiru lagun bilduak dauden tokian, han naiz Ni haien artean» (*Mt 18, 20*).

9. Frantzisko Aita Santuak esan bezala, egiazko ikasle misiolariak diren 'aldameneko ateko santuak' behar ditugu. Horiek gabe, eguneroko bizitzan Jainkoak ari duen egintzaren testigu horiek gabe, zail da sinesgarri izatea eta Erreinua gauzatzea. Honela, beharrezkoa dugu herri santua, egiazko bizi-elkartasuna. Zentzu honetan, bai MARKO PASTORALAK, bai eliz talde ezberdinek, gure parrokiek eta gure fedea bizi, partekatu eta ospatzen dugun beste inguruneek ere indartsu laguntzen digute Jesusen mezua lurreko azken mugaraino irits dadin, baita gure herriaren erraietara ere; izan ere, ez dugu ahaztu behar, gure herriak eliz maitasunaren eta konpromiso sozial, kultural eta misiolariaren historia aipagarria duela.

I. EL ESCENARIO EN QUE VIVIMOS NUESTRA FE

1. Un mundo de cambios rápidos, radicales y globales

10. «La humanidad vive un cambio profundo, histórico» (EG 52-75). Por una parte, somos conscientes de las enormes capacidades de la humanidad (biología, medicina, tecnología, medios de comunicación, transporte...) y vemos que los avances conseguidos en estos campos son realmente admirables e impensables hace muy poco tiempo; pero por otro lado las contradicciones son muchas.

Aunque la mayoría de nosotros vivimos cómodamente, no pocos viven precariamente el día a día, especialmente en el campo laboral (jóvenes, parados, trabajadores pobres...). Ahí están también las complejas problemáticas que arrastran los migrantes que vienen a nosotros y los refugiados. Así como el escenario cultural que vivimos en nuestro pueblo, tan plural y tan secular, que abruma a muchos.

11. Hoy día, hay que tomar muy en consideración el reto de las nuevas tecnologías de la comunicación, que se han generalizado rápidamente y que nos mantienen permanentemente hiperconectados. Toda la información que deseamos está a nuestro alcance a un golpe de clic; lo mejor y lo peor está al alcance de todos; las distancias se han achicado. Internet ha llegado a ser, no solo un medio de comunicación, sino un 'lugar' en el que se 'habita'.

Asistimos al nacimiento de un nuevo modo de ser y de comunicarse entre las personas. En la práctica lo que no sale en la 'red', no existe. La vida se convierte en un escaparate que se muestra a otros; el cultivo de la interioridad parece cada vez más difícil. En muchas ocasiones, lo virtual pesa más que lo real. También se ha abierto un nuevo campo de adicciones. Es verdad que las oportunidades pueden ser muchas y muy interesantes, pero este es un reto a tener en cuenta, pues condiciona mucho los valores de la vida.

12. También es esencial observar lo que está ocurriendo en nuestras familias. No sólo nos vemos afectados por las dificultades de siempre, sino que cada vez son más frecuentes los problemas por falta de comunicación, las rupturas y separaciones, la fidelidad o infidelidad, la no apertura al don de la vida. Esto ha cambiado radicalmente con la aparición de nuevos tipos de convivencias (monoparentales, parejas igualitarias, parejas de hecho, familias ensambladas, etc.).

I. GURE FEDEA BIZI DUGUN INGURUNEA

1. Aldaketa azkarrak, errotikakoak eta globalak bizi dituen mundua

10. «Aldaketa sakona, historikoa bizi du gizadiak» (EG 52-75). Alde batetik, gizadiaren gaitasun handien jakitun gara (biologia, medikuntza, teknologia, hedabideak, garraioa...) eta konturatzen gara arlo hauetan lortutako aurrerapenak miresgarriak direla eta pentsaezinak orain denbora gutxi; bestalde, ordea, asko dira kontraesanak ere.

Gure arteko gehienok eroso bizi bagara ere, ez dira gutxi egunerokotasunean estu bizi direnak, bereziki lan-arloan (gazteak, lanik gabe daudenak, langile pobreak...). Hor daude guregana datozen migratzaile eta errefuxiatuek dituzten arazo korapilatsuak ere. Eta gure herrian bizi dugun ingurune kulturala, hain plurala eta sekularra, jende asko estutu egiten duena.

11. Gaur egun aintzakotzat hartu beharreko gaia da hedabideetako teknologia berrien erronka; azkar zabaldu dira eta hiperkonektatuak mantentzen gaituzte. 'Clic'- kolpe batekin eskura jartzen digute nahi dugun informazio guztia; denen eskura daude gauzarik onenak eta txarrenak; moztu egin dira distantziak. Interneta, hedabidea izateaz gainera, 'bizi-lekua' ere bada askorentzat.

Izateko eta elkar komunikatzeko era berri baten jaiotzaren aurrean aurkitzen gara. Praktikan, sareetan azaltzen ez dena, ez da existitzen. Denentzat ikusgai dagoen ikusleiho edo eskaparatea da bizitza; gero eta zailagoa dirudi barne-bizitza lantzea. Askotan, birtual denak indar gehiago du erreal denak baino. Menpekotasun-alor berria ere azaldu da. Egia da, hedabideen zerbitzu berri horiek egokiera asko eta oso interesgarriak eskaintzen dituztela, baina asko baldintzatzen dituzte bizitzako balioak.

12. Garrantzizkoa da gure familietan gertatzen ari dena ikustea ere. Betikoak diren zailtasunak asko ez direla, gero eta gehiagotan agertzen dira komunikaziorik eza, haustura eta bereizketak, leialtasun- edota desleialkeria-arazoak, bizia dohaintzat hartzeko zabalik ez egotea. Hau guztia erabat aldatu da elkarbizitzako era berriak agertzearekin (guraso bakarreko bikoteak, sexu berekoak, izatezko bikoteak, elkartutako familiak, etab.).

No cabe duda de que está en peligro la familia tradicional, y obviamente las figuras del padre, la madre, los hermanos/as..., pero es verdad que, la familia sigue siendo algo muy apreciado en la vida de las personas, especialmente de los jóvenes y de los ancianos.

13. En nuestra sociedad existe un factor especialmente preocupante, que tiene evidentes connotaciones morales y espirituales: La crisis de natalidad. Si bien es cierto que se trata de un fenómeno generalizado en Occidente, nuestra sociedad vasca tiene en la actualidad uno de los índices de natalidad más bajos del mundo. Tal vez no exista la suficiente conciencia de hasta qué punto esta crisis de natalidad condiciona el presente y compromete el futuro. Obviamente, tratándose de un tema tan complejo, necesita ser abordado a muchos niveles.

Tras la crisis de natalidad se esconde una crisis de esperanza. La paternidad/maternidad no se limita a engendrar una nueva vida, sino que implica entregar la propia vida a los hijos; lo cual supone una vocación de entrega y olvido de nosotros mismos, difícilmente alcanzable sin los valores evangélicos. La cultura antinatalista ha llegado a considerar el aborto como un derecho de la modernidad, lo cual supone un factor de regresión en el horizonte moral de nuestro tiempo. Aborto y eutanasia se conforman en una 'pinza de la desesperanza'. Se trata de una de las consecuencias de la 'cultura del descarte', tantas veces denunciada por el Papa Francisco.

14. Ciertamente, el relativismo moral nos envuelve. La Iglesia ha sido en nuestra tradición vasca la garante de la moral y las costumbres tradicionales hasta hace bien poco; sin embargo, no es así en el presente. Pero la crisis no se ha limitado al reconocimiento de la autoridad moral de la Iglesia. La llamada Ley natural también entró en cuestión, y comenzó a primar no lo 'objetivamente correcto', sino lo 'corriente', lo que 'todos hacen'. Es decir, algo está bien no porque 'esté bien', sino porque todos actúan así. Ahora los consensos sociales, que siempre serán necesarios, no nacen de ninguna ley natural o divina, sino de acuerdos sociales. Son sólo convencionalismos. Impera la creencia de que yo tengo derecho a hacer cualquier cosa con mi cuerpo, con mi vida, con mi dinero, con mi tiempo y con mis cosas, mientras no moleste a los demás.

Pero, sin embargo, aunque nuestra cultura esté marcada por el relativismo, con el devenir de los acontecimientos, constatamos que de ese relativismo ha ido derivando una 'dictadura del relativismo'. En efecto, existe una

Zalantzarik gabe, arriskuan dago familia tradizionala, eta baita aitaren, amaren, senideen... irudiak ere; baina egia da, oso estimatua dela familia pertsonaren bizitzan, batez ere gazteen eta zaharren artean.

13. Gure hirian bada osagai bereziki kezkaigarria, ondorio moral eta espiritual ukaezinak dituena: jaiotza-tasaren krisia. Hori Mendebaldeko gertaera orokorra bada ere, gure euskal gizarteak mundu guztiko jaiotza-tasarik baxuena du une honetan. Behar bada ez dago behar adinbateko kontzientziarik, zenbate-raino baldintza ditzakeen bai oraina bai etorkizuna jaiotza-tasa honek. Zalantzarik gabe, hain konplexua izanik gaia, ikuspegi askotatik aztertu beharra dago.

Jaiotza-tasaren krisiaren atzean itxaropen-krisia ezkututzen da. Aitaren eta amaren eginkizuna ez da bizitza berri bat sortzera mugatzen; horrek beren bizia seme-alabei ematea eskatzen du, beren buruaz ahaztu eta seme-alaben zerbitzura eskaintzeko bokazioa; baina ezinezkoa da hori Ebanjelioko balioak gogoan izan gabe. Jaiotzaren kontrako kulturak modernitatearen eskubidetzat hartu du abortua, eta hori, gure garaiko ikuspegi moralari dagokionaz, atzerakada da benetan. Abortuak eta eutanasiak 'itxaropenik ezaren pintza' edo matxarda eratzen dute. Frantzisko Aita Santuak hainbat aldiz salatu izan duen 'bartzertzearen kultura'-ren ondorio da hori.

14. Egiaz, erlatibismo moralaz inguratuak gaude. Duela oso gutxi arte, Eliza izan da gure euskal tradizioan jokabide moralaren eta ohitura tradizionalen bermatzailea; orain, ordea, hori ez da horrela. Baina krisia ez da Elizaren agintea morala onartzera mugatu. Lege naturala deritzana bera da auzitan jarri dena, eta onesten da ez 'objektiboki bidezko' dena, baizik 'ohikotzat' hartzen dena, 'denek egiten' dutena. Hau da, zerbait onesten da ez 'ondo dagoelako', denek hala egiten dutelako baizik. Orain adostasun sozialak, beti beharrezko izango diren adostasun sozialak, ez dira lege natural edota jainkozkotik sortzen, iritzietan sozialki bat etortzetik baizik. Konbentzionalismo huts dira. Nik neure gorputzarekin, neure biziarekin, neure diruarekin, neure denborarekin eta neure gauzekin, besteei kalterik egiten ez diedan bitartean, nahi dudana egiteko eskubidea dudala bezalako iritziak nagusitzen dira.

Hala ere, gure kultura erlatibismoaz markatua badago ere, erlatibismo hori, gertaeren arabera, 'erlatibismoaren diktadura' bihurtzen ari dela nabaritzen dugu. Izan ere, izugarritzko presio kulturala eta politikoa dago pentsamendu bakarraren alde, eta hori jotzen da politikoki zuzena, erlatibismoaren proposamenak onartu nahi ez dituztenen askatasuna mugatzeraino gainera.

gran presión cultural y política en pro de un pensamiento único, considerado como políticamente correcto; hasta el punto de limitar la libertad de quienes se resisten a asumir sus postulados relativistas. Esta dictadura del relativismo tiene muchos resortes, hasta el punto de conformar una especie de nuevo orden mundial. Con frecuencia el Papa Francisco ha denunciado las presiones existentes para imponer una especie de 'colonización ideológica', tanto a los pueblos como a las familias, en la que las nuevas ideologías políticas pretenden imponer su 'relativismo' de forma imperativa.

En este contexto, los cristianos reivindicamos la libertad de conciencia y la libertad religiosa, al tiempo que el derecho de los padres a educar a sus hijos conforme a sus valores espirituales; para poder así llevar a cabo la predicación y la acogida del mensaje evangélico en toda su originalidad.

2. Una convivencia social frágil y en riesgo

15. Está en juego el futuro de la humanidad y no solamente la felicidad individual de cada cual, ya que, sin códigos comunes, sin decisiones adoptadas y aceptadas por todos, es la humanidad la que corre hacia el precipicio. En este sentido, la defensa y la promoción de los derechos humanos será fundamental, además de una dimensión privilegiada de la evangelización, como «experiencia de fraternidad, de igualdad, de justicia, de paz y de dignidad para todos». (EG 180).

16. El cuidado del planeta Tierra y de la ecología humana, se han convertido en un reto de primer orden. El Papa no se cansa de denunciar un tipo de organización económica inmoral para con los pobres y todo el ecosistema, porque si seguimos produciendo y consumiendo así, destruiremos el planeta, nuestra casa. Afortunadamente, al peligro, le ha seguido, una sensibilidad cada vez mayor, también entre nosotros, con propuestas de respeto, cuidado e integración en la naturaleza.

17. Tampoco podemos obviar la nueva situación política, a nivel tanto universal como local. En este sentido, la convivencia en nuestro país todavía debe ser sanada y reconciliada, desde el respeto debido a todos. Una sociedad fracturada por un conflicto violento largo debe enfrentar las consecuencias de esa violencia, apoyar a las víctimas y supervivientes y reconstruir las relaciones sociales deterioradas. La Iglesia también tiene algo que hacer hoy al respecto, y puede hacerlo (deslegitimar el recurso violento; evangelizar nuestros sentimientos identitarios; mostrar una empatía especial con las víctimas; impulsar

Baliabide asko ditu erlatibismoaren diktadura honek, eta nolabaiteko ordena mundiala eratzea lortzen du. Frantzisko Aita Santuak askotan salatu izan du, presioak daudela ‘kolonizazio ideologiko’ moduko bat ezartzeko, bai herriei, baita familiei ere; ideologia politiko berriek beren ‘erlatibismoa’ ezarri nahi dute agintekeriaz.

Testuinguru honetan, kristauok kontzientzia-askatasuna eta erlijio-askatasuna aldarrikatzen dugu, eta gurasoek beren seme-alabak espirituzko balioen arabera hezteko duten eskubidea; horrela, ebanjeliozko mezua bere jatorriasun osoan predikatu eta onartu ahal izateko.

2. Ahula den eta arriskuan dagoen gizarteko elkarbizitza

15. Gizadiaren etorkizuna dago jokoan, eta ez bakoitzaren zoriona bakarrik. Gehiengoaren araurik gabe, herrialde guztiek hartutako eta onartutako erabakirik gabe, amildegira doa gizadia. Zentzu honetan, giza eskubideak babes-teak eta sustatzeak funtsezkoa izango da, baita ebanjelizatzearen oinarritzko alderdia ere «senitarte-, justizia-, bake- eta duintasun-gune» bezala (EG 180).

16. Lur planeta eta giza ekologia zaintzea lehentasuna duen erronka bihurtu da. Aita Santuak aspertu gabe salatzen du behartsuekiko eta ekosistema oso-arekiko immorala den antolaketa-era ekonomikoa; izan ere orain arte bezala ekoizten eta kontsumitzen jarraitzen badugu, gure planeta suntsituko dugu, gure etxea, alegia. Eskerrak, arriskuarekin batera arazoarekiko sentsibilizazioa ere hazi den, baita gure artean ere, natura errespetatu, zaindu eta integrazteko proposamenekin.

17. Ezin ahaztu dugu hemen gure artean eta mundu osoan ere bizi dugun egora politiko berria ere. Zentzu honetan, gure herriko elkarbizitzak badu oraindik sendatu eta adiskidetu beharra, denei zor zaien begirunea aintzako-tzat hartuta. Indarkeria-gatazka luze batek zatitutako gizarteak, aurre egin behar die indarkeriaren eraginei, lagundu egin behar die biktimei eta bizirik atera direnei, eta hondatutako giza harremanak berregin. Elizak ere badu gaur egun zer egina gai honetan eta egin dezake (indarkeriari zilegitasuna kendu; gure sentipen identitarioak ebanjelizatu; biktimekiko enpatia berezia agertu; eraikitzaileak izango diren elkarrizketa-prozesuak bultzatu; presoen, senitarte-koen eta kaltetuen artean egiten ari diren adiskidetze-esperientziak sustatu; barkamena eta doakotasuna eskaini...).

Oraingo eta etorkizuneko elkarbizitzarako beste alderdi erabakigarria migratzaileen arazoa eta honen eragina da. ‘Migratzailearekiko beldurrak’

procesos de diálogo constructivo; animar experiencias de reconciliación entre presos, familiares y afectados; ofertar perdón y gratuidad...).

Otro factor decisivo para la convivencia presente y futura es el fenómeno migratorio y sus repercusiones. El 'miedo al migrante' necesita ser discernido y sanado, para que no arrastre a la sociedad a un totalitarismo exacerbado.

18. En cuanto a la situación de quienes sufren cualquier tipo de pobreza, es importante que asumamos nuestra propia responsabilidad, revisando nuestras vidas desde «la fe en Cristo hecho pobre, y siempre cercano a los pobres y excluidos, desde donde brota la preocupación por el desarrollo integral de los más abandonados de la sociedad» (EG 186). Por otra parte, «el amor -caritas- siempre será necesario, incluso en la sociedad más justa... Siempre habrá sufrimiento que necesite consuelo y ayuda. Siempre habrá soledad...» (*Deus caritas est*, 28b.) Se trata de captar bien «la propuesta del Evangelio que no es sólo la de una relación personal con Dios» (EG 180). Tampoco es una mera suma de pequeños gestos personales a favor de los necesitados, una 'caridad a la carta'. «No hablamos sólo de asegurar a todos la comida, o un 'decoroso sustento', sino que tengan prosperidad sin exceptuar bien alguno» (EG 192) (educación, salud, trabajo, salario justo).

Al mismo tiempo, sin olvidar en ningún momento estas palabras del Papa Francisco en las que se señala dónde está la mayor pobreza: «Puesto que esta Exhortación se dirige a los miembros de la Iglesia católica quiero expresar con dolor que la peor discriminación que sufren los pobres es la falta de atención espiritual. La inmensa mayoría de los pobres tiene una especial apertura a la fe; necesitan a Dios y no podemos dejar de ofrecerles su amistad, su bendición, su Palabra, la celebración de los Sacramentos y la propuesta de un camino de crecimiento y de maduración en la fe. La opción preferencial por los pobres debe traducirse principalmente en una atención religiosa privilegiada y prioritaria» (EG 200).

3. Un modo de vivir la fe más emocional y subjetivo

19. La cultura actual vive inmersa en el relativismo, de espaldas a una verdad objetiva fundante. Lo que a cada uno le gusta, le conviene o prefiere, se transforma en criterio de elección, pudiendo derivar en el seno de la Iglesia en un cristianismo 'a la carta', que lleva a vivir la fe 'a mi manera'.

En definitiva, algo se considera válido en la medida que nos ayuda a sentirnos bien. De este presupuesto surge el predominio de lo emotivo, en el

bereizmena eta sendakuntza behar ditu, gizartea totalitarismo larri baterantz eraman ez dezan.

18. Edonolako pobretasuna nozitzen dutenekiko egoerari dagokionaz, garrantzitsua da guk geure erantzukizuna geure gain hartzea, eta geure bizitza aztertzea hau kontuan izanik: «Behartsu egin eta baztertuekin beti gertuko izan zen Kristogan dugun fedetik sortzen da gizarteko ahaztuenak erabat garatu daitezen dugun kezka» (EG 186). Bestalde, «maitasuna *-caritas-* beti da beharrezko, baita gizarterik zuzenenean ere... Beti izango da pozbidea eta laguntza behar duen sufrimendua. Beti izango da bakardadea...» (*Deus caritas est*, 28b). Ongi ulertu behar da, «Ebanjelioko proposamena ez dela Jainkoarekin harreman pertsonala izatea bakarrik» (EG 180) (hezkuntza, osasuna, lana, soldata duina).

Aldi berean, ez ditugu inoiz ahaztu behar pobreziarik handiena non dagoen azpimarratzen duten Frantzisko Aita Santuaren hitz hauek: «Aholku-hitz hau Eliza katolikoaren kideei zuzendua dagoenez, minez adierazi nahi dut, behartsuek jasaten duten bazterketarik larriena espirituzko arretarik eza dela. Behartsu gehienek badute fedearikiko barne-irekiera berezia; Jainkoa behar dute, eta ezin ditugu utzi berauei Jainkoaren adiskidetasuna, bedeinkapena eta Hitz eskaini gabe, edota Sakramentuen ospakizuna eta fedearen haztea eta heltzea dakarren bidea eskaini gabe. Behartsuen aldeko lehentasunezko hautuak, pribilegiatua eta lehentasunezkoa den arreta erlijiosoan antzeman behar du» (EG 200).

3. Fedea bizitzeko era emozionala eta subjektiboa

19. Gaur egungo kultura erlatibismoan murgildua bizi da, oinarri izango den egia objektiboari bizkarra emanda. Norberari atsegin edo komeni zaiona edota nahiago duena, hori hartzen da aukerak egiteko irizpide, eta eliz bizitzan jokabide hori 'norberaren aukerako' kristautasun bihur daiteke, fedea 'neure erara' bizitzeko era.

Azken batean, ondo sentiarazten digun hura hartzen da baliozkotzat. Ikuspegi honetan emozioa bihurtzen da nagusi, eta sentimenduari eta nork bere burua errealizatzeari ematen zaio lehentasuna; baina horrela, Jainkoaren Agerpenean oinarritzen diren kristau-fedearen osagai batzuk itxuraldatuak gelditzeko arriskua dago.

20. Ez da zaila egarri espiritual nabarmena izanik, Elizari errezeloz begiratzen dioten pertsonekin topo egitea, gerrak, desberdintasunak eta alderdikeriak

que prima el sentimiento y la autorrealización; con el consiguiente peligro de llegar a distorsionar algunos elementos de la fe cristiana que se funda en la Revelación Dios.

20. No es difícil encontrarnos con personas con notable sed de lo espiritual, pero que ponen bajo sospecha a la Iglesia, a la que consideran culpable de generar guerras, diferencias y discriminaciones; hasta el punto de desconfiar de la misma religión católica.

Necesitamos analizar el motivo por el cual, a pesar de sabernos cauce de 'agua viva', no somos capaces de llegar a todos aquellos que recurren a las técnicas orientales u otras religiones o sectas. Para poder llegar a todos ellos, necesitamos pasar de la 'pastoral de la campana' a la 'pastoral del timbre' (en salida misionera), propiciando el encuentro personal con Cristo a las personas a las que nos dirigimos. Hemos iniciado ya numerosas experiencias de nueva evangelización, pero todavía nos queda mucho por recorrer.

4. Una Iglesia que nos llama a la conversión pastoral

21. Dice el Papa Francisco en su Exhortación programática: «Sueño con una opción misionera capaz de transformarlo todo..., para la evangelización del mundo actual, más que para la auto preservación» (EG 27). Se trata de una llamada a la conversión personal y pastoral en lo referente a nuestra vocación misionera

22. La conversión pastoral no se traduce solamente en elaborar planes más o menos adaptados, bien pensados e inteligentes. De lo que se trata es de recuperar la intención primera de Jesús al convocar a sus discípulos a la misión que el Padre le encomendó: dar vida y vida en abundancia. (cfr. Jn 10, 10).

En este punto, es clave tener en cuenta el lugar y valor del presbítero dentro de la comunidad. El Papa Francisco denuncia el llamado clericalismo, que no es ejercido exclusivamente por los sacerdotes, sino que afecta a cualquier miembro de la comunidad eclesial con algún tipo de responsabilidad. Se refiere a un modelo de liderazgo inadecuado y antievangélico que se concreta en no ejercer la subsidiariedad; no dar participación; no escuchar; no consultar; ejercer el poder de modo autoritario y arbitrario; no integrar a la mujer en la vida de la Iglesia... Obviamente, así considerado, el clericalismo dificulta la vida comunitaria y eclesial y entorpece su desarrollo.

sortu izanaren errudun jotzen dutelako, azkenean erlijio katolikoaren beraren mesfidantza izateraino.

Azterketa egin beharra dugu, 'ur biziaren' iturri izan arren, zergatik ez garen gai ekialdeko tekniketara eta beste erlijio edota sektetara jotzen duten horietara iristeko. Horietara iritsi ahal izateko, 'kanpai-pastoraltzatik' 'txirrin-pastoraltzara' aldatu beharra daukagu (misiolari-irteera eginez), pertsona horiei Kristorekiko elkartze pertsonala egiten lagunduz. Ebanjelizazio berriaren hainbat esperientzia hasia dugu jada, baina bide luzea gelditzen zaigu oraindik.

4. Bihotz-berritze pastoralera dei egiten digun Eliza

21. Bere Aholku-hitz programatikoan hau dio Frantzisko Aita Santuak: «Dena eraldatzeko gai den hautu misiolari batekin egiten dut amets... bere buruaren babeserako baino gehiago, egungo munduaren ebanjelizatzerako bide egoki izan dadin» (EG 27). Gure bokazio misiolariari dagokionaz, bihotz-berritze pertsonala eta pastorala egiteko deiaz ari gara.

22. Bihotz-berritze pastorala ez da egitasmo gutxi-asko egokituak, ondo pentsatuak eta zentzuzkoak egitera mugatzen. Aitak Jesusi emandako eginkizuna, bizia ematea eta ugari gainera (ik. *Jn* 10, 10), gero Jesusek bere ikasleei misiorako deia egitean agertu zien lehenengo asmo hura, berreskuratzea da kontua.

Gai honi dagokionaz, garrantzizkoa da presbiteroaren lekua eta balioa elkaratearen baitan gogoan izatea. Frantzisko Aita Santuak klerikalismo deritzana salatu izan du, eta ez apaizei dagokien klerikalismoa bakarrik, baita eliz elkaratean nolana hiko erantzukizuna duen edozein fededuni dagokiona ere. Era desegoki eta ez ebanjelikoan lider izateari dagokio, ez baitu laguntzailearen lekua hartzen; ez dio besteri partaidetzarik ematen; ez du entzuten; ez du kontsultatzen; agintekeria eta era arbitrarioan agintzen du; ez dio emakumeari sarrerarik ematen eliz bizitzan... Garbi dago, gauzak horrela eginez gero, klerikalismoak zail egiten duela elkarte- eta eliz -bizitza, eta eragotzi egiten duela kristau-elkaratearen hazkundera.

23. Eliz elkaratearen gaitzik okerrenetakoa jarrera ez ebanjelikoak izatea da: txutxu-mutxuak, jeloskortasuna, gorrotoa, harrokeria, handiustea, berekoikeria, nagikeria, etab. Apaltasunik ezak galarazi egiten dio kristauari Ebanjelioaren testigu eta Jainkoaren errukiaren irudi izatea. Era guztietako aurreiritzi eta fundamentalismotatik garbitu beharra daukagu geure barrua. Honek prest

23. Uno de los males más determinantes en la comunidad eclesial es el de las actitudes antievangélicas: cotilleos, celos, rencor, vanidad, orgullo, egoísmo, pereza, etc. La falta de humildad incapacita al cristiano para ser testigo del Evangelio, así como para ser cauce de la misericordia de Dios. Es necesario purificarnos de prejuicios y de fundamentalismos de todo tipo. Esto supone la prontitud para reconocer nuestros errores y pedir perdón. Todo ello requiere sensibilidad para conocernos interiormente, y para identificar las heridas que nos hayan podido marcar en el pasado, hasta el punto de condicionarnos en el presente, llevándonos a enfrentarnos unos con otros.

5. Una diócesis que pide mayor comunión y consenso

24. En la encuesta diocesana que hemos realizado este año pasado previo a este MARCO PASTORAL (2018), se ha insistido también mucho, en la falta de comunión como problema importante: «las divisiones internas, los enconamientos sin sentido, el chismorreó exagerado, las manifestaciones públicas..., escandalizan a mucha gente». Por lo demás, muchos subrayan que, el problema está en que: «seguimos anclados en un excesivo clericalismo, con falta de participación suficiente de los laicos en la toma de decisiones de la Iglesia y un desacertado planteamiento del papel de la mujer en la misma, al menos en algunos aspectos que hoy son importantes». También se señalaba que tenemos «poca implicación y participación en la vida pública; excesivo alejamiento del mundo de los jóvenes; falta de formación litúrgica y bíblica de nuestros agentes de pastoral, así como un escaso conocimiento sobre la Doctrina Social de la Iglesia». Aparecen, entre otros problemas, la importancia de tomar en serio el reto de la pederastia. Evidentemente, hay muchos aspectos positivos que se subrayan; sobre todo en «la acción catequético-litúrgica de niños y padres; la vida socio-caritativa y el voluntariado participante; el trabajo escolar de profesores y padres de apoyo; los esfuerzos de muchos colectivos en cooperación internacional y misiones; la vida espiritual de muchos grupos, particularmente la vida consagrada...».

egotea esan nahi du, gure erruak aitortu eta barkamena eskatzeko. Hau guztia lortu ahal izateko, beharrezko da sentibera izatea geure buruaren barnealdea ezagutzeko; eta lehenaldiak gugan eragin izan ditzakeen zauriak kontuan izatea, oraina baldintzatu baitezakete eta batzuk besteen aurka egotera eramán.

5. Elkartasun eta adostasun gehiago eskatzen duen Elizbarrutia

24. Joan den urtean (2018an) MARKO PASTORAL delako hau eratzeko elizbarrutian egindako galdeketa, garrantzi handia ematen zitzaion elkartasun ezaren gure arazoari: «jende askorentzat eskandalagarriak diren barne-zatiketak, zentzugabeko gaiztoteak, zurrumurru gehiegizkoak, ageriko adierazkenak...». Bestalde, askoren iritzian honetan dago arazoa: «Gehiegizko klerikalismoaren mende egotean, eliz erabakiak hartzekoan laikoek behar adinbat parte-hartzerik izan gabe eta emakumearen eginkizunei buruz planteamendu desegokia izanez, garrantzizko zenbait arazotan behintzat». Beste hauek ere aipatzen ziren: «Parte-hartze eskasa zegoela jendarte-bizitzan; urruntasun handiegia gazteriaren mundutik; gure pastorgileen liturgia- eta bibliagaietako prestakuntza eskasa, baita Elizaren Irakaskuntza Sozialekoa ere». Beste arazoen artean, pederastiaren garrantzia serioski aintzakotzat hartzea azaldu zen. Egia da, bestalde, alderdi baikor asko ere aipatzen zirela: batez ere, «haurrekin eta gurasoekin egindako katekesi- eta liturgia-jarduerak; sozio-karitateko biziera eta borondatezko partaidetza; irakasle eta guraso laguntzaileen eskolako jarduera; hainbat taldek nazioarteko eta misioetako lankidetzan ari duen ahalegina; hainbat talderen biziera espirituala, bereziki biziera sagaratuarena...».

II. DISCERNIMIENTO A LA LUZ DE LAS ORIENTACIONES DE LA IGLESIA

1. Dejarnos mover por la misericordia de Dios

25. En la Bula *Misericordiae vultus*, se dice: «Misericordia: es la ley fundamental que habita en el corazón de cada persona cuando mira con ojos sinceros al hermano que encuentra en el camino de la vida» (n. 2). Pues bien, cabe afirmar, que la misericordia es una forma de mirar el mundo que nos cambia y que nos coloca en la posición de querer cambiarlo.

La mirada misericordiosa nos saca de nuestros senderos conocidos y, rompe radicalmente nuestra cotidianidad. La mirada misericordiosa no conoce fronteras, es universal. Sabe leer los signos de los tiempos y es escatológica: confiada por el 'ya' y esperanzada por el 'todavía no'. Es activa: nos lleva a encargarnos de la realidad. Nos descoloca, nos resitúa, nos lleva a cuestionarnos nuestro lugar en el mundo, nuestras seguridades y nuestros intereses; nos reconcilia con nuestra debilidad y nos convierte en testigos de la esperanza.

